

Famili agurgarriak:

Maiatzaren 23an Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan greba orokorrerako deia egingo dute ELA, LAB eta Steilas sindikatuek. Hezkuntza Publikoko lan-baldintzak hobetu eta berdintasuna eta heziketa integralaren bidean hezkuntza publikoa ardatz izango duen politika exijitzeko.

Ikastetxeko irakasleek, bat egingo dute maiatzaren 23ko grebarekin. Bozkatu ondoren %97,05ak, greba egingo du. * 2. Zikloko irakasleak eta ikasleak asteartean Gorlizen egongo dira egonaldietan eta hauek ez dute grebarik egingo, ekintzarekin aurrera egitera erabaki delako.

Horrelakoetan zerbitzu minimoak izaten dira zuzendaritzako pertsona bat eta atezaina. Ez dakigu hemen egongo diren langileekin umeen segurtasuna bermatzerik izango dugun horregatik datu hau kontutan izatea eskatzen dizuegu.

Eskolaz kanpokoak, Ausolan-eko langileek ez daude grebara deituak, beraz jangela zerbitzua egongo da 12:15etatik 14:15etara. Janaria alperrik ez botatzeko, jakin nahiko genuke zeintzuk etorriko diren jangelara. Horretarako mesedez beheko datu hauek bete eta astelehenerako, tutoreari entregatu. **Jangelako erabiltzaileak bakarrik.**

Eskerrikasko.

✂.....

Izen-abizenak

Jangelara bidaltzeko asmoa bai.....ez.....